



GURASO BILERA

LH 1

2025/2026 ikasturtea

AURKIBIDEA

- 1. AURKEZPENA**
- 2. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA**
- 3. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA**
- 4. METODOLOGIA**
- 5. ATEGORRIETA PROIEKTUA: ESPAZIOA METODOLOGIAREN MESEDETAN**
- 6. JANGELA EREDUA**
- 7. ARLOAK ETA IKAS-MATERIALA**
- 8. LAN-AZTURAK. GURASOekin ELKARLANEAN**
- 9. HELBURUAK ARLOZ ARLO**
- 10. ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEEI ARRETA EMATEKO PLANA**
- 11. ZENBAIT OHAR**
- 12. OSASUN ARRETA**
- 13. IRTEERAK ETA OSPAKIZUNAK**
 - a. Olentzerorekin kantujira
- 14. ERANSKINAK**
 - a. Ordutegia
 - b. Jangelako dekalogo

1. AURKEZPENA

Haurtzaroaren garaia amaitu ondoren, Lehen Hezkuntzara iritsi dira zuen seme-alabak.

Haurraren garapen osoaren ikuspegitik, Haur Hezkuntzan haurra ulertzeko moduaren oinarrizko printzipio metodologiko berdinak jarraitzen ditugu etapa honetan ere:

- Errespetua haurraren izate osoari. Haurra pertsona aktiboa, bizia, sentikorra eta harbera da. Haur bakoitzak bere garapen-erritmoa dauka.
- Konfiantza haurraren berezko garapen-ahalmenari. Bere jarduera autonomoa eta erritmo biologikoak errespetatuz konfiantza izan beregan bere gaitasunak garatu ditzan.
- Haurraren ziurtasun fisikoa eta emozionala bermatu behar dugu, baldintzak eskainiz eta bere beharrekiko sentikortasuna adieraziz.
- Etapa honetako lehen bi urteetako ikasleen ezaugarri nagusiak (piskologikoak, afektiboak, harremanekin loturikoak...) kontuan hartuko dira lortu beharreko oinarrizko konpetentziak eta konpetentzia disziplinarrak modu eraginkorrean garatu ditzan.
- Haurrek afektu handia behar dute beti, jaso eta erakutsi. Adin honetan afektu gabeziak oraindik ere beraien bilakaeran ondorio oso negatiboak izan ditzake.
- Haurrek jolastu egin behar dute lehenik eta behin. Trebetasun fisikoak garatzea adimen-ahalmenak garatzea bezain garrantzitsua da.
- Harremanen ikuspuntutik, benetako komunikazioa ezarri behar dugu haurrekin, haren gauzekiko interesa azaldu eta interes horien alde egin.
- Gauza guztiekiko interes handia eta gogo bizia izaten dute. Beraien pentsaera pertzeptzioari lotuta dago, oraindik ere pentsamendu abstraktuak egiteko gai ez direlarik.
- Bere seme-alabengan gurasoek dituzten iritziak eragin handia dute haurraren eta bere buruarekiko segurtasuna indartzen saiatu behar dute. Gurasoek iritzi positiboa helarazten badiote, haurrak bere benetako gaitasun guztiak agertuko ditu.

Hau guztia honela izanik, hezitzaileak haurraren bidelagun izan behar du. Helduak haurrari segurtasuna eman behar dio, egiten dituen behaketetan oinarrituz egindako lorpenak aitortu eta balioetsiz. Funtsezkoa da ohiturak sortzea, jarrera egokiak bultzatzea eta beraien interesei erantzutea.

Beraien jakin-minari eta ahalmen handiari erantzun behar zaio. Haurrak era autonomoan esploratzeko, esperimentatzeko eta beste jolas librean aritzeko testuinguruak sortu behar ditugu benetako ikasketa eman dadin.

2. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA

TUTOREAK: 1.A IMANOL MOLINERO imoliner@zurriolaikastola.eus
1.B UXUE LOPEZ ulopez@zurriolaikastola.eus
1.C KARMELE CAJARAVILLE kcajaraville@zurriolaikastola.eus

Ingelesa: ITSASO IZAGIRRE iizagirre@zurriolaikastola.eus eta UXUE LOPEZ ulopez@zurriolaikastola.eus

Musika: AITZIBER GARBIZU agarbizu@zurriolaikastola.eus

Aholkularia: EIDER BERAZA aholkularia@zurriolaikastola.eus

LH-ko etapa burua: PAULA GONZALEZ etapaburualh@zurriolaikastola.eus

Ikasturtean zehar guraso bilera orokor bat egingo dugu. Horretan ikasturteko helburuak, metodologia eta eguneroko dinamikaz arituko gara.

Urtean idatzizko 3 ebaluazio-txosten helaraziko zaizkizue. Bakarkako 2 elkarrizketa egingo ditugu gurasoekin ebaluazio-txostenen gaineko azalpenak emateko eta ikaslearen garapenari buruzko informazioa trukatzeko. Biler horietaz gain, behar adina aldiz elkartzeko gara zuekin, egoerak hala eskatuz gero.

Tutorearekin harremanetan jarri edo mezu bat helarazi nahi izanez gero, bere e-postara mezu bat bidali eta ahalik eta azkarren emango zaio erantzuna. Momentuan jaso beharreko mezua balitz, Ikastolako idazkaritzara deitu. Ikasleen bidez oharrak bidaliz gero, hauek idatziz egin beharko dira.

Hortaz gain, gogorazten dizuegu urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den **ATARIA** astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, **OSO GARRANTZITSUA** da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio hori guztiari Ikastolako webgunea gaineratu behar zaio.

Atariarekin inolako arazorik izanez gero, idatzi alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera. Zuen datu pertsonaletan aldaketarik izanez gero, idatzi ezazue idazkaritzara: idazkaritza@zurriolaikastola.eus

3. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA

Zurriola Ikastola 3 lerrotako ikastola izanik, LHko maila bakoitzeko ikasleak 3 oinarritzko taldeetan banatzen dira, eta talde bakoitzak irakasle tutore/erreferente bat du. Etapa hau bi ziklotan banatzen dugu, bata LH1-3 bitarte eta bestea LH4-6 bitartekoa. Bi zikloen arteko jarraikortasun bat lortu nahian, taldekatze berriak, LH4 maila bukatutakon berrituko dira. Dena dela, modu ez-ohikoan eta hainbat arrazoi medio, Zuzendaritza taldeak, LHko Talde Pedagogikoak eta irakasle-taldeak hala erabakitzen badu, zikloan zehar taldekatzeak aldaketak izan ditzakete.

Mailako gela bakoitzaren arlokako ordutegia desberdina da talde bakoitzean. Ikasturte honetako ordutegiak txostenaren eranskinean aurkituko dituzue.

4. METODOLOGIA

Ikastolan haurrarentzat proposatzen ditugun espazio, material, jarduera eta denboraren antolaketak haurraren ongizatean eta garapenean eragin zuzena dute. Honek, gure antolaketa zein espazioen etengabeko azterketa egitera behartzen gaitu, haurraren garapen osoan (psikomotorean, afektiboan, sozialean zein kognitiboan) eragina baitu. Orokorrean, ikaslearen ikasketa-prozesua ekintzan, esperimentazioan eta manipulazioan oinarrituko dugu.

GELA ETA SAIOEN ANTOLAKETA

Talde osoarekin batera hainbat jarduera egiten ditugu. Hurrei harrera egin, eguna agurtu, azalpen orokor bat eman, ipuin kontaketa eta bestelako ekintzetarako erabiliko dugu antolaketa mota hau gehienbat.

Haur Hezkuntzan erabilitako zirkulazio autonomoa abiapuntutzat hartuta, ikasleen autonomian pauso bat aurrera emateko helburuarekin, eginbehar edo jarduera desberdinak dituen zerrenda bat azalduko diegu. Guk ERRONKAK deitzen diegu. Hurrek ahalmena izango dute, jarduera horiek noiz eta norekin egin behar dituzten erabakitzeko, beti ere, espazioak berak eta kideen arteko harremanek berez jartzen dituzten mugak kontuan hartuta. Jarduera horiek ikasleen ahalmen desberdinetara errazago egokitu ahal izango dira, bakoitzaren erritmoa errespetatuz.

Matematika, irakurketa/idazketa eta inguruneko konpetentzia disziplinarrak lantzeko jardura desberdinak egongo dira bereziki zerrenda horretan. Bestalde, modu honetara lan eginez, ikasleek bestelako oinarrizko konpetentzien hainbat alor garatzeko aukera izango dute, hots, ardura, autonomia, frustrazioaren kudeaketa, eta abar.

ERREFORTZU SAIOAK

Ikas-prozesuan ager daitezkeen zailtasunei aurre egiteko laguntza gehigarria eskaintzen dugu. Tutoreak zuzenduta izaten dira saio hauek eta ikasle talde txiki bati zuzenduta egoten dira.

Errefortzuak orduz barne izango dira, eta hauetan bigarren irakasle bat sartuko da gelan. Ikasleren bat errefortzuan hartuko bada familiei adieraziko zaizue.

5. ATEGORRIETA PROIEKTUA: ESPAZIOA METODOLOGIAREN MESEDETAN

Zurriola Ikastolan azken urteotan eraldaketa pedagogiko batean murgilduta dago, eta gure eraikina LHn dugun eta datozen urteetan izan nahi dugun metodologiaren mesedetan diseinatu eta hornitu ahal izan dugu. Beraz, Ategorrieta eraikin bat baino Ategorrieta proiektuaren zutabe garrantzitsu bat dela esan dezakegu. Eraikin berriarekin ez da abian dugun eraldaketa amaitu, eta proiektua bera etengabeko hausnarketa eta sortze bidean darrai oraindik.

Proiektu honetan ikaslea jarrera aktibo bat izatera bultzatu nahi dugu, irteera profilean markatutako ezaugarriak lortzeko baldintza eta egoerak sortu nahi ditugu, eta aniztasunari hobeto erantzungo dion metodologia bat erabili nahi dugu. Hori lortzeko bidean, irakasle-ikasle rolean, metodologian, material didaktikoan, ebaluazioan, espazio eta denbora antolaketan jarri dugu gure arreta.

6. JANGELA EREDUA

Jangelako orduetan, bazkaltzeaz gain, beste balore eta helburu batzuk lantzen ere saiatzen gara. Bazkaltzea ez da helburu bakarra. Eremu honetan hainbat alor lantzeko aukera dago: ardura, autonomia, motrizitatea, garapen emozionala, ingurunearekiko sentiberatasuna, mahaian eduki beharreko ohitura egokiak... Ikasleei protagonismoa ematea bilatzen du, jangelako tarte horretan beraien parte-hartzea areagotuz.

Ategorrietako ezaugarriek eta antolaketak ikasleek bazkaltzeko duten denbora luzatzea baimentzen du, eta adinarekin arabera ikasleek mahaia jarri, mahaia jaso, aulkiak bildu, ingurua txukundu... egingo dute. Ikasleak mahai borobiletan eseriko dira, eta beraietako

bat arduraduna izango da. Ikasleekin geletan landuko den dekalogoak duzue eranskinean.

7. ARLOAK ETA IKAS-MATERIALA

Matematika, irakurketa/idazketa eta ingurune konpetentzia disziplinarrak lantzeko ohiko materialaz gain guk sortutako materiala erabiliko dugu.

• EUSKARA

Ahozko adierazpena komunikazioaren oinarri da, eta etengabe lantzen jarraituko dugu. Ordea, ziklo honetan idatzizko komunikazioak indarra hartzen du, orain baita ikasle guztiek irakurri eta idazten ikasiko duten garaia.

Idatzizko komunikazioa lantzeko azken urteetan erabili izan dugun materialetik jarduera egokienak mantenduta, ikasleen interes, erritmo eta gaitasunetara egokitzen den bestelako materiala sortu dugu eta sortzen ari gara. Modu honetara, adin honetan garatu behar duten idatzizko-komunikazioaren konpetentzia modu motibatzaile eta eraginkor batean landu eta hizkuntza idatziarekin harremana sendotzen joateko guneak izango ditugu.

• MATEMATIKA

Matematika ikasgaia modu manipulatioan lantzen dugu gehienbat. Metodologia honen onurak azpimarragarriak dira.

Ikasleek beraien inguruan gertatzen dena abiapuntutzat hartuta eta material erakargarria eta motibatzailea erabiliz, behatu, ikertu, esperimentatu, manipulatu, hipotesiak egin, bide ezberdinak probatu, estrategiak pentsatu, eztabaidatu eta egindako prozesua zein lortutako emaitza ahoz eta hizkuntza matematikoan adierazten dituzte. Modu honetara matematika ulergarria eta dibertigarria bihurtzen da eta jolastuz ikasten da. Ikasle bakoitzaren garapenerako aproposa den eskaintza mailakatua egiten da.

• INGURUNEA (NATUR ZIENTZIAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK)

Hainbat gai erabiliko ditugu abiapuntu bezala arlo honetako helburuak lortzeko. Ikasleen interesen arabera landuko ditugu jarduera desberdinak, beti ere, lortu beharreko oinarizko konpetentziak, zein konpetentzia disziplinarrak helburu izanik.

Txoko Zuria izango dugu. Txoko honek gaiekin lotura zuzena izango du eta ikasleek etxetik ekarritako material desberdinarekin hornituko da (liburuak, jostailuak, panpinak, argazkiak...).

- **INGELESA**

Haur Hezkuntzan atzerriko hizkuntzarekin harremantzeko ildo jarraituz, ipuinetan oinarritutako lanketa bat egiten dute ikasleek orain ere. Metodologia hau bereziki ahozko komunikazioan oinarritzen den arren, ziklo honetan ikasleak idatzizko testuak lantzen hasten dira. Haurrak ingelesezko gertuko ahozko komunikazioa ulertu eta modu gidatuan ahoz adierazteko gai izateaz gain, ingelesez mezu errazak irakurtzera eta modu gidatuan idaztera motibatzea da helburua.

Ikastolen Elkarteko Eleanitz proiektuaren metodologiaren barne dagoen "The adventures of Hocus and Lotus" materiala erabiliko dugu. Ariketa liburuaz gain, haurrek webgune bat izango dute eskura, non abestiak, istorioak eta hainbat jolas aurkituko dituzten.

Aurten gelan landuko ditugun abestiak eta istorioa etxean entzutea eskatuko diegu hurrei. Ikasleek paper bat eramango dute etxera eta lana burutu ostean gurasoen sinadurarekin berriro ikastolara ekarriko dute. Honetarako gurasoen laguntza ezinbestekoa da.

Entzunaldi hauek zurriolaikastola.saioka.eus webgunean aurkituko dituzue. Sarbidea prest dagoen bezain pronto webgune hau nola erabili helaraziko dizuegu.

- **ARTE HEZKUNTZA (MUSIKA ETA PLASTIKA) ETA ANTZERKIA**

Astean bi orduz musika-plastika-antzerkia lantzeko tailerrak izango dituzte. Ikaslea tailer guztietatik pasako da hiruhilekoan zehar.

Ikasleak irudien, marrazkien, musikaren eta beste adierazpen ugariren sortzaile, erabiltzaile eta hartzaile izaten dira. Jolasaren bidez sortze prozesuan teknika ezberdinak ezagutuko dituzte eta musika eta arte plastikoekin esperimentatuko dute, nor bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazteko. Musikan mugimendua, ahotsa, erritmoa, eta instrumentazioaren hastapenak landuko dira nagusiki. Euskal kulturaren eta euskal-ohituren transmisio-unea ere izango da.

Antzerkia tresna bezala erabiliz, emozioak, auto-kontzeptua, hizkuntza adierazpena eta gorputz adierazpena landuko dira bereziki. Bestalde, antzerki-lan batean parte hartzen duten eragile desberdinen rolak poliki-poliki landuko diren arren, helburua ez da izango antzerki-lan baten erakustaldia.

- **HEZIKETA FISIKOA**

Adin honetako haurrek mugimendua ezinbestekoa dute. Mugimendua osasunarekin lotzeaz gain, norberaren gorputzaren gaitasun motorrak ezagutzea eta jolasaren bidez

horiek garatzea da gure helburu nagusia. Horretarako ekintza ezberdinak proposatuko ditugu: bakarkakoak, bat baten aurkakoak, elkarlanekoak, elkarlaneko-aurkakotasunekoak, ziurgabetasunekoak eta adierazpenekoak. Horiek guztietan arauen betetzeaz gain partehartzea ere sustatuko da.

Gorputz Hezkuntza dugun egunetan haurra arropa erosoarekin etortzea eskertuko genizueke.

- **PSIKOMOTRIZITATE SAIOAK/ TUTORETZA**

Adin honetan, haurrak transizio-garai bat izaten du, banakako pertsona sentitzetik beste pertsona batzuekin dituen harremanak garrantzia gehiago hartzen duelarik. Ondorioz, bizikidetzaren esparruan, bere gertukoak diren testuinguruetan (familia, ikastola, auzoa) sortzen diren egoeren kudeaketarako erramintak eta estrategiak lantzen dira, Bestalde, besteekiko errespetuzko jokabideak sustatzen dira, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko elkarbizitza helburu izanik. Besteak beste, hau lantzeko, astean behin goiko atariko gimnasioan ordu eta erdiko psikomotrizitate saio bat egingo dugu iaz haur hezkuntzan egiten zutenari jarraipena emanez.

8. LAN-AZTURAK. GURASOekin ELKARLANEAN

Lanerako garaian aztura hauek landuko ditugu nagusiki:

- Autonomia
- Lagunei laguntzeko prest egotea
- Besteen lanak baloratzea
- Adi egotea
- Lanak garaiz hasi eta bukatzea
- Postura egokian lan egitea
- Txukuntasuna
- Materiala zaintzea
- ...

Behaketa lanak, materiala ekartzea, datuak biltzea, irakurtzea eta antzekoak eskatuko dizkiegu. Horretarako zuen partaidetza **ezinbestekoa** izango da.

9. HELBURUAK ARLOZ ARLO

Hiruhileko bakoitzaren amaieran ebaluazio txosten bat jasoko duzue gurasoek posta elektroniko bidez. Bertan, ikasleek arlo bakoitzean lortutako helburu didaktikoak adieraziko dira, eta hauen lorpen maila. Zenbait kasutan, bestelako xehetasunak ere adieraziko dira, helburua lortu ez bada, noraino iritsi den, adibidez.

Txosten honekin batera jangelako erabiltzaileen gurasoek informe bat ere jasoko duzue. Jarraian dituzue arloz arlo hiruhileko bakoitzean lortu beharreko helburu didaktikoak.

NORBERA IZAN ETA ELKARREKINTZA

- Euskara erabiltzeko jarrera baikorra izatea.
- Parte-hartzaile agertzea gelako jardura eta elkarriketetan.
- Eguneroko elkarriketetan arrazoiatzeko gaitasuna erakustea.
- Era autonomoan aritzea lanean.
- Landutako ezagutzak egoera ezberdinetan aplikatzen saiatzea.
- Informazioa jasotzeko hainbat iturri ezagutzea.
- Talde lanetan parte hartzea eta errespetuz aritzea.
- Gelan ezarritako arauak betetzea.
- Behar duenari laguntza eskaintzea.
- Lagun artean gustura ibiltzea eta hauekiko jarrera ona agertzea.
- Taldearen aurrean lasaitasunez aritzea.
- Lan dinamika berrian ondo egokitzea eta eguneroko jardunean ondo moldatzea.
- Lanean saiatzea eta erritmo onean aritzea.
- Jakin mina eta ikasteko gogoazazaltzea.
- Erne eta langile aritzea.

EUSKARA ETA LITERATURA

1.hiruhilekoa

AHOZKOAK:

- Ingurune hurbiletik jasotako ahozko mezuak ulertzea.
- Euskararen oinarriko formak zuzentasunez erabiltzea.
- Eguneroko egoeratan bere bizipenak adieraztea.

IRAKURKETA:

- Hitzak irakurtzea.
- Bokalak eta kontsonante gehienak ezagutzea eta dagokion grafemarekin lotzea.
- Irakurketa lantzeko jardueretan jarrera egokia agertzea.

IDAZKETA:

- Minuskularako pausua ematen hastea.

• Idazketa lantzerakoan interesa agertzea.
2.hiruhilekoa
AHOZKOA: • Hainbat jarduera egiteko emandako ahozko aginduen arabera jokatzeko. • Hizkuntzaren oinarriko egiturak modu egokian erabiltzea eta bere hiztegia aberastea. • Eguneroko egoeratan bere ideia, iritzi eta jakintzak era ulergarrian adieraztea. IRAKURKETA: • Esaldi sinpleak irakurtzea. • Irakurketa saioak arretaz jarraitzea. IDAZKETA: • Esaldi ulergarriak ekoiztea eta laguntzarekin hobekuntzak egitea. • Letraren tamaina kontrolatzea. • Testuak idatzi behar dituenean jarrera ona agertzea.
3.hiruhilekoa
AHOZKOA: • Gelan erabili ohi diren ahozko testuen informazio orokorra ulertzea. • Hiztegi maila egokia izatea. • Gertaerak, sentimenduak, ideiak... modu ulerkerrean adieraztea. IRAKURKETA: • Ahots gorako irakurketa arinagoa egitea eta testu desberdinak irakurtzea. • Ondorengo testuak identifikatzea: komikia eta ipuina. • Irakurketa saioak arretaz jarraitzea eta parte hartzea. IDAZKETA: • Testuak ekoiztea. Horiek berrikusi eta zuzenketa batzuk egitea. • Grafia zaintzea. • Arlo honetan motibatuta eta gustura aritzea.

INGELESA
• Eguneroko hizkuntza ulertzea eta egitura sinpleak erabiltzea gelan komunikatzeko. • Landutako hiztegia ikastea (koloreak, zenbakiak 1-25, eguraldia, asteko egunak, arropa, gorputzeko atalak, jostailuak). • Landutako abestiak ikastea. • Ipuinetako hizkuntza ulertzea eta egiturak erreproduzitzea. • Aktiboki parte hartzea gelako dinamikan.

MATEMATIKA
1.hiruhilekoa
• Irizpide bakarrari jarraituz (forma edo kolorea) seriaketak egitea.

• Zenbakien esanahia, grafia eta erabilera 9a arte barneratzea, ikuspuntu kardinaletik eta ordinaletik. • Ahozko zenbaki-segidak buruz ikastea hogeita arte, gora eta beheraka. Hogeita arteko zenbaketa erabiltzea bildumak osagaien kopuruaren arabera konparatzeko eta ordenatzeko. • Zifra bakarreko batuketak egitea.
2.hiruhilekoa
• Elementu ezberdinak sailkatzea. • 50 arteko zenbakiak identifikatzea eta zifraz idaztea. • Hamarrekoak erabiliz 100 arte zenbatzea. • 10 arteko emaitza duten batuketak buruz kalkulatzeko. • Bi zifretako zenbakiekin batuketa eta kenketak egitea. Batuketaren esanahia ulertzea. • Denborarekin erlazionaturiko kontzeptuak bereganatzea (egunaren zatiak, atzo, gaur eta bihar). • Goian, behean, aurrean eta atzean kontzeptuak kontuan izanda bere burua espazioan kokatzea.
3.hiruhilekoa
• Ahoz planteatutako problema sinpleak ulertu eta burutzea. • Hainbat irizpide jarraituz seriaketak egitea. • 100 arteko zenbakiak irakurri eta zifraz idaztea. • Batekoak eta hamarrekoak ezagutu eta ondo bereiztea. • 10 arteko batuketak buruz egitea. • Bururakoa duten batuketak egitea. • Eguneroko bizitzako objektuetan eta espazioetan irudi lauak identifikatzea: triangeluak, karratuak, zirkuluak. • Objektu eta espazio desberdinen luzera neurtzeko estrategia ez konbentzionalak zuzen hautatzea.

INGURUNEAREN EZAGUTZA
1.hiruhilekoa
DINOSAURIEN GARAIA • Ezarritako irizpide baten arabera sailkapenak egitea. • Eskatutako lanak egiteko informazio-iturri desberdinak erabiltzea. LEHEN GIZAKIAK • Denboran zehar bizi baldintzen aldaketaz jabetzea eta onurak balioestea. • Era oinarritzkoan izaki bizidunen eta inguru fisikoko oinarritzko elementuen artean dagoen harremana erretasunez azaltzea. • Aztarna arkeologiko, usadio, ohitura, jarduera eta tresna jakin batzuk garai historiko jakin bateko gizartearen berezko bizimoduaren adierazleak direla jakitea.

2.hiruhilekoa
GIZA GORPUTZA - Norbere zein besteen gorputzaren ezaugarriak ezagutu eta errespetatzea. - Giza gorputzaren funtzionamenduarekiko interesa azaltzea eta atal nagusiak identifikatzea. - Elikadura eta higiene ohitura egokiak izatearen, ariketa fisikoa egitearen eta atseden hartzearen garrantziaz jabetzea. GREZIA - Landutako zibilizazioen ezaugarri nagusiak ezagutzea eta gaur egungo bizimoduarekin alderatzea.
3.hiruhilekoa
AINTZINAKO ERROMA - Historian gizarte desberdinetan izan den eguneroko bizimoduen eboluzioaz jabetzea. NATURA ZAIN DEZAGUN - Bizidunak eta bizigabeak bereiztea. Inguruan ditugun zenbait landare eta animalia ezagutzea eta identifikatzea. - Bizidunekiko eta inguruko elementuekiko ardura eta jakinmina agertzea. - Ura era egoki eta arduratsuan eta ingurumena errespetatuz kontsumitzeko beharra balioestea. - Baliabide naturalak agortu daitezkeela jabetzea, eta garapen jasangarria bermatzeko baliabide horiek zentzuz erabili behar direla balioestea.

HEZIKETA FISIKOA
- Jolasa oinarri hartuta, oinarrizko trebetasunak egoki lantzea. - Proposatutako ariketetan saiatzea. - Landutako baloreak (ikaskideekiko errespetua, elkarlana, joko arauen onarpena, emaitzaren onarpena...) zaintzea.

MUSIKA
1.hiruhilekoa
- Erritmo eskemak modu ez konbentzionalean osatzea. - Keinu eta mugimenduak egitea kantu baten akonpainamendu gisa. - Irudi musikalak (kortxea, beltza eta bere isilunea) interpretatzea. - Saioak arretaz jarraitzea.
2.hiruhilekoa

• Ikaskideekin koordinaturik landutako dantzak egoki egitea. • Lau pultsuko erritmo eskemak irakurtzea eta interpretatzea. • Taldean, jaialdietako kantuak gogoz abestea.
3.hiruhilekoa
• Landutako irudi musikalak eta horien balioak identifikatzea. • Egoki erantzutea proposatutako jardueretan. • Oro har, bere bilakaera egokia izatea.

PLASTIKA
1.hiruhilekoa
• Esku trebetasuna garatzeko landu ditugun tekniketan ongi moldatzea. • Egindako lanetan ordena eta garbitasuna balioestea eta zaintzea.
2.hiruhilekoa
• Oinarrizko 3 koloreak abiapuntu bezala hartuta beste koloreak lortu daitezkeela jabetzea. • Erabilitako materiala modu egokian erabiltzea eta zaintzea.
3.hiruhilekoa
• Esku trebetasuna garatzeko landu ditugun tekniketan ongi moldatzea. • Lagunek egindako lanak eta ekarpenak errespetatzea.

10.ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEEI ARRETA EMATEKO PLANA

Hezkuntza Sailak, Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko Planaren barruan, ezaugarri hori duten ikasleak identifikatzeko protokolo du abian.

Protokolo hau Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. LH1eko ikasleen prozesua ikasturteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan egingo da. Honen helburua ikasle hauek izan ditzaketen beharrei erantzuteko hezkuntza arreta egokia ematea da.

Tutoreek ikasleen behaketaren eta adierazpenaren bidez galdetegi bat beteko dute. Eremu kognitiboari, ikaskuntza-estrategiei, sormenari eta irudimenari, eremu sozio-emozionalari, motibazioei eta interesei eta errendimendu akademikoari lotutako zenbait item baloratuko dituzte.

Zuen seme-alabak adimen gaitasun handiak izan ditzakeen zantzuak aurkitzen badira, detekzio espezifiko bat egingo zaio bigarren fase batean, eta horretan, zuen kolaborazioa ezinbestekoa izango da.

Detekzio espezifikoaren ondoren aurkitu diren zantzuak egiaztatzen badira, ebaluazio psikopedagogikoa egingo zaio hirugarren fase batean, adimen gaitasun handiko ikaslea den zehazteko.

11. ZENBAIT OHAR

A) EUSKARA

Ikastolan eta ikastolako jarduera guztietan euskaraz hitz egingo dugu, eta gure ingurukoek ere euskaraz hitz egin dezaten eskatuko dugu.

B) PUNTUALITASUNA

Sarrera orduetan garaiz iristeari garrantzi handia ematen diogu. Arrazoiak:

- Ikasleek puntual iristen ikasi behar dute.
- Berandu sartzen direnak nabarmendu egiten dira eta ez dira eroso sentitzen.

C) HAMAIKETAKOA

Haur Hezkuntzan ez bezala, ziklo honetan haur bakoitzak bere hamaiketako jango du. Tuperrak erabiltzea erabakitzen baduzue, izena jarri mesedez.

D) ATARIRAKO MATERIALA

Arrazoi pedagogikoei so eginez, atarian (goizeko zaintzan, hamaiketako garaian eta eguerdian) ikasleak jolasean aritzeko materiala ikastolak eskainiko du. Beraz, eskatzen dizuegu, zuen seme-alabek ikastolara jostailurik ez ekartzea (kromoak, zibak, rubik kuboak, panpintxoak...). Jostailuren bat ekarri beharko balute arratsaldeko 16:30etatik aurrera jolasean aritzeko, beraien motxiletan gordeta izan beharko dute ikastola-eguna amaitu arte. Hala ere, 16:30etatik aurrera, atarian ezingo dute baloiarekin jolastu.

E) ARROPA

Ezinbestekoa da zuen seme-alaben arropan izena jartzea. Eguneroko martxan ikaragarri lagunduko liguke.

F) URTEBETETZEAK

Ikasle guztien urtebetetzeak gelan ospatzen ditugu. Urteak betetzen dituen ikasleak bizkotxo eta kandelak ekarri behar ditu. Mesedez eskatzen dizuegu etxeko ospakizunak ikastolatik kanpo antolatzea.

G) SMARTWATCH-AK, SAKELEKOA ETA BESTELAKO GAILU ELEKTRONIKOAK

Ikasleek ezingo dituzte mugikorrak, smartwatch-ak eta baimendu gabeko bestelako gailu elektronikoak ikastola eremuan gainean eraman. Ikastolara ekartzekotan, motxilan gordeta izan beharko dituzte Ikastola eremutik atera arte.

H) IKASLEEN IRTEEREN ANTOLAKETA

Gogorarazi nahi dizuegu LHko ikasleen jarduna arratsaldean **16:30**ean amaitzen dugula. Horregatik, zuen seme alabak ordu horretan jaso behar dituzue.

Atearen irekiera eta itxiera:

- Irekierak: 8:50 (ate nagusia), 12:30 eta 14:25 (ate txikia) eta 16:30 (ate nagusia)
- Itxierak: 9:05 (ate nagusia), 12:40 eta 14:35 (ate txikia) eta 17:15 (ate nagusia)

Ikasleen irteeren baimenak: Seme edo alaba DBHtik aurreragoko senide batek jasotzeko aukera dago baimen eskaeraren formulakia betez gero.

12. OSASUN ARRETA

Aurretik osasun-fitxaren bitartez adierazi zenigutena aplikatuko dugu aurten ere ikasleei botika eman eta dagokien osasun arreta eskaintzeko garaian. Orduz geroztik **aldaketaren bat eman bada** (ikaslearen osasun egoera, har ditzakeen botikak...) lehenbailehen tutoreari adierazi, tutoreak emango dizuen informazio-oria bete eta, behar den kasuetan, medikuaren agiria ekarri beharko duzue. Tutoreak helaraziko dizuen fitxa horretan bi atal nagusi dituzue:

- Lehenengo atala krisi egoera bat sorraraz dezaketen gaixotasunen bat dutenek bete behar dute. Hala denean, ekar ezazue arren medikuaren txostena. Bertan, ikasleak krisiren bat izanez gero ikastolako kideok nola jokatu behar dugun adierazi behar da.
- Bigarrena orokorra da, denek betetzea eskatzen dizueguna. Bertan, gurasoek adierazi behar duzue ikastolari baimena ematen diozuen ala ez ikasleari botika emateko:
 - Analgesiko edota antiinflamatorio orokorrak seme-alabari emateko baimena ematen ote duzuen adierazi. **Bai** ala **ez** adieraz ezazue arren.
 - Gaixotasun kronikoa duelako beste sendagairik ematea eskatzen duzuenean (bronkodilatadoreak...) botikarekin batera medikuaren txostena ere ekar ezazue, arren, botika emateko jarraibideekin.

Haurren batek bestelako gaitz kutsakorren bat balu tutoreari berehala abisatzea eskatzen dizuegu (Aftak, konjuntibitisak, zorriak, heste-zizareak, gastroenteritisa,...)

Ikasleak elikagaiekin loturiko arazorik duen kasuetan (alergia, intolerantziak...), eta arazo hau Ategorrietako jangelakoentzat berria bada (LH1ekoa delako, orain arte jangelakoa

ez zelako edo arazoa berria delako), osasun fitxa betetzeaz gain, jangelako arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.

- **ISTRIPUEN KUDEAKETA:**

Ikastolak ikasleentzat kontratatutako aseguruia Mapfreren bitartez bideratzen da. Aseguruetze honek hitzarmena du Donostiako POLIKLINIKA eta QUIRON osasun-zentroekin. Istripu bat Ikastolako eremuan gertatzen denean, bai eskola-orduetan, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere, ikasleak bi zentro hauetako batetara (larrialdietara) eramango dituzue. Bertan, Ikastolatik prestatu zaien "istripu partea" erakutsi beharko dute. Istripu parterik ez balego (idazkaritza itxita dagoelako edo istripuaren ondorioak ikastola orduetatik kanpo sumatu direlako), Zurriola Ikastolako ikaslea dela adierazi eta partea hurrengo egunean jasoko dutela esanda, artatuak izango zarete. Hurrengo egunean abisua eman idazkaritzan gertatutakoarekin, partea bidali dezagun.

Norbaitek hitzartutako zentru hauen ordezkariak zerbitzuak erabiltzea erabakiko balu, jakin, behin prozesua bertan abiatuz gero, ondorengo pausoak ere Osakidetzan eman beharko direla, beraien prozedurak eta tempusak jarraituz. Kasu honetan, Ikastolako asistentzia-partearekin prozedura berdina jarraitu beharko da, hau da, aldezturik prestatutakoa eraman edo hurrengo egunean ikastolan abisua eman, parte bidali dezagun.

13. IRTEERAK ETA OSPAKIZUNAK

IRTEERAK:

Ikasturtean zehar hainbat irteera egin ohi dira urtero, goiz-pasa, egun-pasa edo egun batzuetakoa. Horietako batzuk helburu akademikoekin lotura zuzena dute, beste batzuk, ordea, elkarbizitzarekin edo bestelako zehar konpetentziekin.

- Zinemaldia
- Tinko Zinema euskaraz
- Ekainberri Museoa
- Inguruko natur gune batera egun pasa

Zurriolako Atariaren bidez emango dizuegu irteera horien berri, eta kosturik balute, errezibo bidez kobratuko zaizkizue.

Aurreko ikasturtean martxan jarri genuen moduan, hemedik aurrera zenbait ekintza eta irteeratan Ikastolan Mugi txarteekin ibiliko gara. Ondorioz, irakasleak eskatutako irteera edo ekintza jakin batzuetarako ikasleei Mugi txartela pertsonala ekartzeko eskatuko zaie.

Txartela ekartzen ez dutenek, Ikastolako txartel anonimoak erabiltzeko aukera izango dute, eta ondoren egindako bidaiaren kostua errezibo bitartez kobratuko zaizue gurasoei.

Ikasturte bukaeran 3 egunetako irteera ere egingo dugu (maiatzaren 20, 21 eta 22). LH1ekoak Barriara joango gara.

OSPAKIZUNAK:

Ikasturtean zehar, Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure gizartearen kultur-adierazpen hauek ikasleak ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetako bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko. Horien berri data gerturatu ahala emango dizuegu.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 3ean
- San Tomas: abenduaren 19an
- Olentzerorekin kantujira: abenduaren 24an
- Danborrada: urtarrilak 19 astelehena
- Kaldereroak: otsailaren 6an
- Korrika txikia: martxoak 27
- Ikastolaren Eguna: maiatzaren 16a

Guraso bileren txosten orokorrean adierazten den bezala, Ikastolako kooperatibista moduan, gurasoek parte hartzeko konpromezua hartu duzue. Urte osoan zehar ekimen asko direnez, maila honi dagokiona Olentzeroren kantujira da. Honen inguruko informazio gehiago guraso bileran emango zaizue.

14. ERANSKINAK

A) ORDUTEGIAK

LH 1A		<u>LAMIA GELA</u>		IMANOL	
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	
	AHOZKOTASUNA	HEZIKETA FISIKOA	PSIKOMOTRIZITATEA		
JOLAS GARAIA					
		INGELES			
IPUINAREN ORDUA					
BAZKALTZEKO GARAIA					
INGELES	MATEMATIKA TXOKOA		PLASTIKA/ MUSIKA/ ANTZERKIA	INGELES	
LIBURUTEGIA		MUSIKA			

LH 1B		<u>TARTALO GELA</u>		UXUE
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
	PSIKOMOTRIZITATEA		INGELES	INGELES
JOLAS GARAIA				
IPUINAREN ORDUA		INGELES		
BAZKALTZEKO GARAIA				
HEZIKETA FISIKOA	MATEMATIKA TXOKOA	MUSIKA	PLASTIKA/ MUSIKA/ ANTZERKIA	AHOZKOTASUNA
		LIBURUTEGIA		

LH 1C	<u>SUGAAR GELA</u>	KARMELE
-------	--------------------	---------

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
	HEZIKETA FISIKOA	PSIKOMOTRIZITATEA		INGELES
JOLAS GARAIA				
IPUINAREN ORDUA		INGELES		LIBURUTEGIA
BAZKALTZEKO GARAIA				
INGELES	MATEMATIKA TXOKOA		PLASTIKA/ MUSIKA/ ANTZERKIA	MUSIKA
		AHOZKOTASUNA		

	URDINEZ DAUDEN ARLOAK ERREFERENTEAREKIN LANDUKO DITUZTE
--	---

B) JANGELAKO DEKALOGOIA

GURE JANGELAKO DEKALOGOIA

- 1.** Jangela ez da jatetxe bat. Denon ardura izango da jantokiko zerbitzua eta garbitasuna. Bertako hezitzaileek lan horretan lagunduko gaituzte.
- 2.** Jangelan errespetuzko jarrerak izan beharko ditugu:
 - Zerbitzatzen gaituenari eskerrak eman.
 - Gauzak "mesedez" eskatu.
- 3.** Janaria eta esku zikinak ez datoz bat, ezta? Jantokira sartu aurretik eskuak ongi garbitu.
- 4.** Bazkaldu aurretik denon artean mahaia jarriko dugu.
- 5.** Janaria ez dugu jolasteko erabiliko. Beraz, ez bota ogi zatirik.
- 6.** Matematikak bezala, jaten ere ikasten da! Horretarako elikagai guztiak probatu behar ditugu.
- 7.** Ssssss... Denok gustukoa dugu giro lasaiean bazkaltzea. Tonu baxuan hitz egin eta oihurik ez, mesedez.
- 8.** Jangelan presa ez da lagun ona. Beraz, mahaikideek amaitu arte ez gara mahaitik altxako.
- 9.** Bazkaltzen bukatzean hezitzaileen laguntzarekin mahaia jasoko dugu eta mahai ingurua txukun utziko dugu.
- 10.** Gure burua zaintzeaz gain natura ere zaindu beharko dugu ba! Plastikozko ontziak birziklatzera botako ditugu.

Aurretik ipinitakoak betetzeko gai al zara? Hala bada, ongi etorri ikasle!! Prest zaude Ategorrietako jangela erabiltzeko.

Ohar honen gaztelaniazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.
La versión en castellano de este documento está disponible [aquí](#).